



3 UDALA  
Herriko Kale izendegian izen berriak

Ohiko udalbatzarra egin zen asteartean eta honetan besteak beste herriko bi plaza berrientzat izena onartu zuten alderdiek. Hauek herritarrek gehien bozkatu dituzten izenak izan dira, Elizatze eta Tximistarreta plazak hain zuzen. Horretaz gain, Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak aurkeztutako mozioa aurrera atera zen eta herrian birziklatzeko aukera ematen duten zaka-rrontziak jartzearen alde egin zuten alderdi guztiek.

5 ELKARRIZKETA  
Dantzaren eguna ospatuko du Kukukak

Apirilaren 29an, dantzaren nazioarteko eguna da. Aurtan Kukuka antzerki eta dantza eskolak Lasarte-Orian ere egun berezi hau ospatu nahi du eta horretarako, apirilaren 27an dantza topaketa batzuk eta egunean bertan, ekitaldi txiki bat egingo du. Mainer Oiazabal dantzari, koreografo eta Kukukako irakaslearekin egitasmo hau eta dantzaren inguruan hitz egiteko aukera izan dugu.



Taxio Arrizabalaga Gazteria eta Festak batzorde buruak Maketa eta San Pedro jaietarako kartel lehiaketak aurkeztu zituen atzo Manuel Lekuonan. Lehenengoan berrikuntza, Euskara saria izango da euskaraz abesten duten taldeei zuzenduta 500 eurotako saria, hain zuzen. Kartelari dagokionez, erakusketa eta internet bidez herritarrek gustukoena bozkatu ahal izango dute.

Taxio Arrizabalaga Gazteria eta Festak batzorde buruak teknikariekin batera aurkeztu zituen atzo Maketa eta Kartel lehiaketak.

"Bi lehiaketa hauek, modu batean edo bestean, gure herriko jaiekin erlazioan dauden lehiaketak dira. Maketa lehiaketako irabazleak herriko jaietan kontzertua eman ohi du, sariaren parte bezala eta kartel lehiaketaren helburua berriz, hauei irudi bat jartzea da".

Horrela Maketa Lehiaketan parte hartzeko baldintzak azaldu zituzten eta zinegotziak gogoratu nahi izan zuten dagoeneko epea zabalik dagoela eta maiatzaren 4a bitartean bidali ahal izango direla lanak musika@lasarte-ariasarean.eu helbidera.

Oinarriak udaletxeko weban daude eskuragarri baina funtsean, kontutan hartu beharrekoak izango dira formatu komertzialean lanek argitaratu ez duten taldeak izatea, edozein musika mota onartuko da eta hiru abesti



Taxio Arrizabalaga Gazteria eta Festak saileko burua eta teknikariak maketa eta kartel lehiaketako aurkezpenean.

aurkeztu beharko dituzte "epaimahaiak balora ditzan".

Berrikuntzak

Sarietan berrikuntza nagusi izan dagoela azpimarratu nahi izan zuten agerraldian Arrizabalagak. Orain artean bi sari mota ezberdin ematen ziren, sari orokorra edo lehen saria, eta Lasarte-Oria saria, taldeki-deen %50 herrian erroldatuta zuten taldeek hartzen zuten parte modalitate honetan.

"Aurtan, hauek mantentzeaz gain, beste bat ere gehitu diogu Euskara Saria. Euskaraz abesten duten taldeei zuzenduta". Azaldu zenez, sari berriaren helburua "garbia da, euskararen normalizazioan bidea egiten jarraitzea, eta euskaraz abestera animatzen diren taldeei babes bat gehiago ematea".

Irabazlearentzat 1.000 euro izango dira eta Lasarte-Oria sariak 700 euro. Euskara saria 500 eurotako izango da.

Epaimahai osatzeko, kideen arteko paritatea man-

tentzeko saiakera berezia egingo dela aurreratu zuten.

Festetarako irudia

Maketa lehiaketarekin batera jaietako kartela hautatzeko lehiaketa ere aurkeztu zen. Lanak aurkezteko maiatzaren 15a izango da azken eguna.

Baldintzei dagokionez, teknika librea da, modu digitalan zein eskuz aurkeztu ahal dira lanak, nahi adina lan aurkeztu ditzake persona berberak eta "bete beharreko baldintza bakarra kartelean San Pedro Jaiek Lasarte-Oria 2013 esaldia txertatzea da, eta noski oinarrietan eskatutako neurrietan lana aurkeztea".



Kasu honetan saria baka-rra da, 350 eurotako. "2012 urtean bezala erakusketa publikoa egingo da aurkezten diren lanekin herritarrek haien iritzia eman dezaten". Herritarrek Internet bidez ere bozkatu ahal izango dute "baina erabakia ez da loteslea izango" Gazteria eta Festak batzordeak izango du azken hitza "beti ere herritarren iritzia kontutan hartzeko konprometua hartzen dugularik".

Honetaz gain, aste honetan San Pedro jaietako egitaraua osatu nahian herritarren aportazioak jasotzeko bilera irekiak burutu ditu Lasarte-Oriako Udalak.

ALBA  
ARROPA DENDA

Udaberria iritsi da gurera !

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450



KOOKAI  
NAFNAF  
WESSE

Neure kabuz



Asier Odriozola

Reala

Joan den urtean Athletic taldeari gorazarre egitea otu zitzaidan zutabe honetan bertan. Egundoko denboraldia egin zuen eta nahiz lasartear askok ikusi ere ezin duten, han joan ziren burura etorri zitzaizkidan hitz guztiak lasai ederrean.

Pentsatuko duzue lagunartean entzun behar izan nituenak hura argitara eman zuenean Txintxarrik. Alegia, aski zutela komunikabide guztietan, bereziki ETBn esaten zuten, ematen ari ginen albiste sortarekin eta etzela bidezkoa herriko aldizkarian ere hura irakurri behar izatea. Zorrotz baina aldarre onean esaten zizkizidaten eta nik, jakina, kiroltasunez entzun nituen, areago, nere gogoko taldeak Manchester, Schalke eta Lisboako Sporting kale-rida bidaltzen zituela ikusita.

Gauzak asko okertu dira San Mames zaharrean ordea. Aurten, nahasi eta zikin dabilta hango urak eta nongoak garbituko eta Realekoak.

Kasualitatea ere bada, Athletic gainbeheran doanean Realak berebiziko denboraldia egitea.

Lagunek sinisten ez badidate ere, pozten naiz. Gaizki pasa dute oso txuriurdinek bigarren mailako esperientzia horretan eta haren ordainez edo merezi dute poz pixka bat.

Zorionak beraz eta zukutu ondo aldeko garai hauek, Athleticetik urbeteko tregua txiki bat besterik ez dizue eman-eta!!

Zorion agurrak



Irati

Zorionak printzesa, iada 5 urte!!! Mila muxu aitaxo, amatxo eta Leire.



Saray eta Andrea

Zorionak zuen urtebetetzeetan! Txokomarrubizko muxuak familiakoen partetik.



Asier

Zorionak txapeldun segi entrenatzen eta Errealeko atezaina izatea lortuko duzu



Unai

Zorionak maitea. Zure urtebetetzean ondo pasa. 6 muxu ama, aita eta Aneren partetik.



Lucas

Zorionak txapeldun. Ama, aita eta Sheenaren partetik. Muxu pila.



Eluxka

Zorionak marimatrakazure zortzigarren urtebetetzean. Familiaren partetik.



Birramona

Zorionak eta segi horrela!!! Muxu bat zure ahaideen partetik Anaut familia.



Gabriel, Xuhar eta Aitor

Zorionak!! Ederki ospatuko dugu!! Familiaren partetik.



Paco

Ondo pasa eta kontuz ez ospatu gehiegi, gero kupela... muxu handi bat familian partetik.



Enara

Zorionak poxpolin, eta ondo pasa. Bost muxu potolo maite zaitugun guztien partetik.



Irala

Zorionak gure erregina! Sei muxu potolo pottolo Leire, amatxo eta aitaixoren partetik.



Hugo

Zorionak! Muxu pila aitonaren partetik!



Irala

Zorionak poxpolin marisorgin! Hiru muxu bana etxeko guztien partetik.



Amalur

Zorionak sorgintxo. Marrubizko 5 muxu pottolo. Etxeko guztien partetik

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Oihan Zubillaga Gonzalez, martxoaren 29an.
- Nora Fernandino Palomares, martxoaren 27an.
- Arnau Ortega Casas, martxoaren 26an.
- Ainar Liceaga Iraola, martxoaren 21ean.
- Josu Sanz Manzano, martxoaren 19an.
- Julen Arratibel Aranburu, martxoaren 18an.
- Nagore Gil Lopez, martxoaren 18an.
- Xian-Yao Jiang, martxoaren 16an.



Heriotzak

- Jose Guisasola Lazcano, apirilaren 9an, 89 urte zituela.
- Celestina Marcos Lopez, apirilaren 9an, 65 urte zituela.
- Candida Guzman Diez, apirilaren 6an, 80 urte zituela.
- Iban Jimenez Gonzalez, apirilaren 4an, 32 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 12 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549

Larunbata, 13 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774

Igandea, 14 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774

Astelehena, 15 Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567

Asteartea, 16 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9 943 019521

Asteazkena, 17 Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652

Osteguna, 18 De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aldabe, Perkaiztegi 8  
Hernani, Tel.: 943 336 022

Azoka txikia

Eskaizta immobiliarioak

- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskatzen da. Telefonoa: 649526766
- Juan XXIII plazan garaje marra bat alokatzen da. 55 euro. Harremanetarako, 616 816 814.

Salerosketak

- Opel Astra salgai 7 urte dauzka eta egoera

onean dago. Interesa duenak deitu 637 733 447 edo 943 574 327

Lan-eskariak

- Emakumezko arduratsua lan egingo luke kanpotik joanda edo etxean bertan geratuta. 646 200 905
- Esperientziadun emakumeak lan egingo luke agureak zein umeak zaintzen, interna edo

externa moduan, orduka... 638372872

- Aroztegi, eraikuntzan edo baserrietan lan egiteko prest nago. Paperak ditut. Harremanetarako 656 333 322 edo 943 507 952 zenbakira deitu.
- Emakumea eskaintzen da orduka pertsona edadetuak zaintzeko edo kamarera bezala lan egiteko. Harremanetarako, 696 279 628.
- Gizona eskaintzen da baserrian, sukaldean

edo kamarero bezala lan egiteko. 699 877 014.

- Heziketa Bereziko diplomatu haurrek zaintzeko edo klase partikularrak emateko prest. LH eta DBHko ikasleei. Ikasturtean zehar zein udan. Esperientziaduna. Amaia, 647 142 701.
- Emakume arduratsua eskaintzen da pertsona adinduek edo haurrek zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduka, zein interna moduan. Harremanetarako, 636 467 722.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko irizti-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Ezaguirre, Jon Altuna I, Maider Azurmendi, Jon Altuna E  
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Aruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

## UDALBATZARRA



Apirileko ohiko Udalbatzarrean zinegotzi guztiak hartu zuten parte.

## Elizatzte eta Tximistarreta plaza berriak

Birziklitzeko aukera ematen duten zakarrontziak jartzea onartu zen

**Ohiko udalbatzara egin zen asteartean eta honetan besteak beste herriko bi plaza berrientzat izena onartu zuten alderdiek. Hauek herritarrek gehien bozkatu dituzten izenak dira, Elizatzte eta Tximistarreta. Horretaz gain, Frankismoaren Krimenen Aurkako Kerelaren Euskal Plataformak aurkeztutako mozioa aurrera ateratu zen.**

**O**hiko udalbatzar lasaia izan zen astearteko.

Lehenengo hitza hartzen EAJko Boris Nogaes izan zen, honek parte-hartze sailarekin landutako kale izendegiaren proposamena aurkeztu zuen. Herritarrek, internet bidez eta postontzietan gehien bozkatu zituzten izen berriak, San Pedro Elizaren atzeko plaza-entzate, Elizatzte izan da eta Loidi-Barrengo Babes Ofizialeko etxebizitzaren aurreko plaza-entzate Tximistarreta. Izen berriak aho-batez onartu ziren.

### Industriarako lurra

Ondoren, Nerea Sanchezek hirigintza atalari dagokion "Teresategi Hegoaldea HIEan plangintzako arau subsidiarioak puntualki aldatzeko prozeduran atzera egitea" aurkeztu zuen. Lur hauek industriarako berrizendatzea zen plangintza horretan aurreikusten zena eta Bilduko zinegotziak honetan atzera egitea proposatu zuten alderdiei garai honetan beharra ez dagoelako argudiatu.

PSE-EE, PP eta Marisa Zubirik kontra bozkaturatu aurrera ateratu zen prozesuan atzera egitea eta PSE-EEko Zabalosek gogor salatu zuten erabakia "Herrian lur gutxi dago eta honi industria erabilpena ez ematea hanka sartze bat dela iruditzen zaigu, horrela ez dugu herrian industria sortuko, ez da

enpresarik etorriko eta ez dugu lan postu berririk eragingo". Nekazal lurra mantentzea ere beharrezkoa dela erantzun zion Sanchezek.

Honekin jarraituz, Lasarte-Oriako Plangintza Urbanistikorako aholku batzordearen erreglamendua aldatzeko proposamena bozkatu zuten zinegotziak.

Hirigintzako zinegotziak azaldu zuten proposamen hau egitearen arrazoiak "batzorde honetan udal alderdi eta teknikarien presentzia dago soilik eta hankamotz geratzen zela iruditzen zitzaizkan, herriko elkarte eta eragileek honetan parte hartzea beharrezkoa ikusten dut".

PP eta PSE-EEren abstentzioekin aholku batzordea herriko eragileei zabaltzearen aldeko proposamena onartu zen.

### Frankismoaren krimenak

Frankismoaren Krimenen Aurkako Kerelaren Euskal Plataformak aurkeztutako mozioa alderdiek puntuz puntu bozkatu zuten PPK eskatuta eta gainontzeko alderdiek onartu.

Horrela udalaren atxikimendua jaso zuten dokumentuak zituen sei puntutako bik, hau da, "Ildo honetan Lasarte-Oriako udaltxeak bere laguntza eta atxikimendua ematen dio Argentinako Errepublikan, Buenos Airesko 1 epaitegian, 4591/10 kerelari zein Maria Servini de Curia epaileak daraman genozidioaren eta gizateriaren Lasako

frankismoaren krimenengatik" eta "Lasarte-Oriako udaltxeak hiritar orori eskatzen dio Kereila honen alde egin dezan, bai kereilaizale gisa errepresiorik sufritu duenak, berak edo bere familiakoren batek, edo baita diktaduraren aurka bere salaketa eginaz eta atxikimendu pertsonala sinatuz". Bilduren aldeko eta beste alderdien abstentzioa jaso arren.

PP eta PSE-EEko ordezkariak azaldu zuten "ez gaude ados testuan erabiltzen den hizkuntza, erredakzioarekin". Hala ere, kerelaren ideia nagusiekin bat egiten zutela adierazi zuten.

### Birziklapenaren alde

Azkenik PP-ko Vanesa Velezek aurkeztuta, herrian birziklitzeko zakarrontziak jartzeko erabakia hartu zuten aho-batez alderdiek.

Mozioan bi eskera jaso zuten ziren, batetik udalak egun dauden zakarrontzi eredu baztertuta, birziklitzeko balioko duen beste baten alde egitea, "hondakinak jatorrian bereiz ditzagun" eta batetik, udalaren eraikin guztietan birziklitzeko ekintzak burutzeko konpromisoa hartzea.

Honekin kalean dauden zakarrontziak aldatu eta gaika birziklitzeko ahalbidetuko duten ontziak jartzea begi onez ikusi zuten alderdi guztiak. Adostasuna ikusita Velezek bere poza azaldu zuen.

Erregu eta galderen txandean, PSE-EEko Zabalosek hainbat galdera egin zizkion gobernari Atsokabarreko lanen inguruan besteak beste. Hauek bukatuta daudela azaldu zion Gizarte Zerbitzutako burua Gorka Lizarragak "sukaldekako ekipamendua osatzea falta da soilik".

## BIYAK BAT

## Cadizera eta Tarazona aldeera bidaiak

Biyak Bat jubilatuen elkarteak eta Eroski Bidaiak-ek San Ferandora, Cadiz, 10 egunetako bidaia antolatuta dute, maiatzaren 26tik ekainaren 4ra.

Egun guztietan gidaren laguntza izango da eta Cadiz eta inguruetak herri ezberdinak ezagutzeko aukera izango da.

Era berean, hilabete honetako irteera Tarazona eta Castejonera izango dela jakitera eman dute.

Izena ematea epea ireki da dagoeneko. Irteera honen prezioa 34 eurotako da bazkideentzat eta bazkide ez direnek 38 auro ordaindu behar dituzte.

Bidai hauei buruz informazio gehiago edo izena eman nahi duenak Biyak Bat elkarteko bulegora hurbil daiteke astelehenean ostiralera 10:30 eta 12:30ak bitartean.

## ANGELMAN SINDROMEAK

## Mugikor eta tablet zaharren bilketa

Lasarte Oriako Kultura departamentuak 2012ko azaroaren bukaeran Angelman sindromea elkarteak martxan jarritako egitasmoarekin bat egin zuen, erabilitako mugikor eta tableten bilketa gauzatzeko.

Orduan Manuel Lekuona kultur-etxean jarri zuten bilketa puntua eta Jada, Lasarte Oriako 100 telefono baino gehiago jaso dira herritarren ekarpenek esker. Orain kanpaina indartzeko, beste puntu bat jarri da Loidi-Barren kiroldegian.

Jasotako telefonoak birziklapen enpresetara bidaltzen dituzte eta diru hori Angelman sindromearen ikerketarako erabiltzen dute.

Angelman Sindromea gaixotasun neurogenetikoa da, bereizgarri kliniko oso definituak ditu eta 15 kromosomari lotuta dago. Ezaugarriak, besteak beste, honakoak dira: atzerapen mental gogorra, hizketa eza, ataxia eta itxura pozgarria izatea. Mikrozealia eta konbultsioak ere ohikoak dira.

## IKASTAROA

## Janari-manipulatuak ikastaro berria

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, janari-manipulatuak ikastaro berria emango du.

Ikastaroak Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukiak ditu eta arrisku handiko elikagaiak maneiatzeko balio du. Horregatik, antolatzaileek jakitera eman duteenez, ostalaritzako sektoreari zuzendua da.

Ikastaroa apirilaren 18an eskainiko da Osasun Zentroko bigarren solairuan dagoen erabilera anitzeko aretoan. Orduetako 16:00etatik 20:00etara izango da. Prezioa pertsonako 45 eurotako da. Langabetuentzako prezio berezia dago, 35 euro eta erregimen generalean dauden pertsonentzako bonifikatzeko aukera dago.

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu OMIC/KIUB-ra 943 361 605 edo Elkolab, S.COOP. 943 533 303 enpresako telefonora.

## IRAKASKUNTZA

## Eskualderako Zubikasi zerbitzua

Buruntzaldea eskualdera zuzendutako Prestakuntza Bitartekari Zerbitzua eredu informazioa zabaldu nahi du Zubikasik. Honako hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Lanbide Heziketarako eta Etengabeko Prestakuntzarako Sailburuordetzak sortutako bitartekari zerbitzuen sareko parte da eta Usurbilgo Lanbide eskolan kokatzen da.

Zerbitzu honek eskura dagoen prestakuntza eskaintzaren berri ematea du helburu. Horrela Lasarte-Oriako bizilagunei "gaurko eta geroko prestakuntza interesen azterketa, adierazpena eta zehaztapena; bakoitzaren etengabeko prestakuntza ibilbidearen plana egitea eta prestakuntza nahiei eta beharrei erantzuna emango dion informazioaren bilaketa ere erraztea" eskaitzen die.

Martxan dauden ikastaroak asko dira eta eskaintzaren inguruko informazio osatua [www.zubikasi.org](http://www.zubikasi.org) webgunean aurki daiteke.

Era berean, euren prestakuntza zabaltzeko interesa duten herritarrek eurekin harremanetan jartzera animatzen dituzte. Edozein zailtasun argitu nahiez gero, Lanbide eskolara gerturatu, E-108 bulegoan 9:00-15:00 bitarteko ordutegian edota telefonoz 943 562 061 eta 943 364 600 zenbakietara deitu behar da.

# Kalitatezko dantza garaikidea

Arrakasta handia izan duen "Ar-tean" ikuskizuna eskainiko du bihar Dantzaz konpainiak

*Lasarte-Oria Dantzan 2013 egitasmoaren lehen saioa izango da larunbata honetan, 20:00etatik aurrera, Manuel Lekuona kultur-etxeko aretoan. Dantzaz konpainiak Estatuan eta nazioartean erakutsi duen "Ar-tean" ikuskizuna eskainiko du bihar gure herrian. Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen dantza Garaikideko zirkuituko emanaldia da.*

**E**uskal Herrian lanean dauden dantza garaikideko taldeak ugariak dira. Hauen artean, bihar Lasarte-Orian izango den Dantzaz konpainia da horietako bat.

Lasarte-Oria dantzan 2013 ekimenetako lehen ikuskizuna izango den "Ar-tean", eskainiko du Donostiako konpainiak bihar Manuel Lekuona kultur-etxean, 20:00etan.

## "Ar-tean" ikuskizuna

Dantzaz konpainiak izen handiko koreografo europarrak gonbidatu zituen bere bostgarren urteurrena ospatzera.

"Ar-tean" lanean, konpainiak Itzik Galili maisu ospetsuarekin lan egin du berriro ere.

Emanaldi honetan, Donostiako konpainiak koreografo israeldar honen bi koreografia ikusiko dira. Bate-tik, "Earth apples" aparteko koreografia eskainiko da berriz ere, eta nazioarteko

sortze lana den, "Flash deluxe".

Konpainiak azaltzen duenez, lan honetan sendo nahastun dira indarra eta maiztasuna. Eta Iparraldeko kompositore den Paxkal Indoren sormen handiko doinu ikuskizun berri honetan, oso ibilbide interesgarria egiten ari den koreografo gazte bat en, Lukas Timulak eslovakiarraren lana ere izango da ikusgai.

Koreografo gazte honek "A place between" eskainiko du. Hau bi ekitaldiren arteko unea izan liteke, baina baita jaiotzaren eta heriotzaren arteko gunea ere.

70.000 ikuslek baino gehiagok gozatu dute ikuskizun honetan Euskal Herria, Espainia, Frantzia, Alemania, Txekiar Errepublika, Suitza eta beste hainbat herrialdetan



Dantzaz konpainiako dantzariak "Flash deluxe" koreografiako momentu batean.

egindako ehun eta hogeita hamarretik gorako emanaldietan. Lasarte-Orian larunbata dago aukera.

## Dantzaz konpainia

Dantzaz Konpainia Euskal Herriko egoera koreografikoa aire erakargarria eta indarberritzailea eman nahi dio.

Konpainiak honek Europako herrialde desberdinetako dantzarietara maila profesionalen ezagunak izateko aukera ematen die. Egun, hainbat emanaldi eskaintzen ditu Estatu eta nazio-

artean eta "Kameleoak" ikuskizuna estreinatuko du maiatzean.

## Lasarte-Oria dantzan

Arestian aipatu legez, "Ar-tean" emanaldia Lasarte-Oria Dantzan 2013 egitasmoa lehen emanaldia izango da.

Maiatzaren 24an, berriz, "In corpore sano" ikuskizuna eskainiko du Organik konpainiak.

Eta azkenik, azaroaren 23an, Marta Carrascoren konpainiak "La dona descalça" lana erakutsiko du.

Emanaldi hauek guztiak, Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen Dantza Garaikidea bultzatuz zirkuituaren barruan daude kokatuak.

## Sarrerak

"Ar-tean" ekitaldiko sarrerak eskuragarri daude leihatilan, 6,50 euro, eta lasarteoriasarean web orrialdean, 5,40 euro.

Lasarte-Oria dantzan ekimeneko beste dantza saiotarako sarrerak laster izango dira lasarteoriasarean.eu orrialdean.

## Uda paregabea igarotzeko, etorri Udako Txokoetara

**A**ste Santuko oporrak igaro dira eta ikasturteko azken txanpa iritsi da. Asko Udako oporretan pentsatzen hasi ko ziren. Ttakun K.E.-k Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz uztaila eta abuztuan 3 urtetik 12 urte arteko haur eta gaztetxoek lagun berriak egon eta ederki gozatzeko Udako Txokoak prestatu ditu.

Adinaren araberako programazio anitza izango da eta aspertzeko astirik ez dute izango haur eta gaztetxoek egingo diren hamaika ekintza eta irteerei esker.

Honela 3 urtetik 4 urte bitarteko haurrek, 2008 eta 2009 bitartean jaiok, jolasak eta tailerrak egingo dituzte.

2005 eta 2007an jaiotako haurrek ingurumena lantzeko programazio anitza izango dute eta jostakiroa programarekin era askotako kirolak praktikatzeko aukera izango dute.

8 urtetik 12 urte bitarteko gaztetxoek berriz, abenturaz-

ko ekintzak, hau da, mendi irteera eta bibak-a egingo dute, kirolaz gozatuko dute, tailer ezberdinak egingo dituzte eta talde jolasak eta jolas kooperatiboak ikasiko dituzte.

Irteerei dagokionez, 4 urtetakoek igerilekura joango dira eta txango bat egingo dute. Beste adinetako haur eta gaztetxoek astean behin hondartzara, "Topic" txotxongilo museora, ... irteerak egingo dituzte.

Eta hainbat jaialdi ere ospatuko dira, hala nola, San Fermin edo azken festa.

## Astigarraga, Donemiliaga eta Mendigorria

Hau guztiaz gain, gaztetxoek kanpoan egonaldi luzeagoak egiteko aukera dute Udako Txokoak udaleku itxietan zuztartzu.

Honela, LH2 eta LH3-k Astigarragara joateko aukera dute. Txango hau lau eguneko izango da eta azken festa-



Ederki gozatu eta jolastuko dute haur eta gaztetxoek Udako Txokoetan.

rako Lasarte-Orian izango dira.

Bestalde, LH3 eta LH4 mailakoek, uztailaren 16tik 27ra bitartean, Mendigorriko, Nafarroa, Udaleku itxietan egoteko aukera dute.

Eta handienek, LH5 eta LH6ko gazteek, uztailaren 3tik 14ra bitartean, Donemi-

liagan, Araban, primeran pasako dute.

Milaka abentura biziko dituzte, beraz, gaztetxoek udalekuetan.

## Goiz txoko

Udako Txokoetako ordutegia goizeko 10:00etatik 13:00etara izango da.

Hala ere, azken urteetan bezala, Goiz-Txoko zerbitzua eskainiko da haurrak 9:00etatik aurrera haien lagunekin jolasean egon daitezten.

## Izena ematea

Honela, Udako Txokoetan primeran pasa nahi duten haurrek astelehenetik aurrera eman behar dute izena Ttakun K.E.-ko bulegoan.

Lasarte-Orian erroldatuak dauden haurrak, Ttakuneko bazkideen seme-alabek edo elkarte ekintzetan parte hartzen duten haurrek izango dute lehentasuna Udako Txokoetan.

Ordainketa egiteko Ttakun bulegoan, kreditu txartelarekin edo Kutxabaneko 2095-5048-18-1061552351 kontu korrantean. Diru-sarreraren kontzeptuan, haurren izen-abizenak jarri behar dira.

Matrikula orria sinatuta eta ordainagiria Ttakuneko bulegora eraman behar da.

Izena emateko azken eguna maiatzaren 10a izango da.

Maidor Oartzabal Dantzari eta koreografoa

# “Sorkuntza oso garrantzitsua da, euskal dantza bermatu nahi badugu”

► Dantzaren nazioarteko eguna dela eta, hilaren bukaeran Kukukak ekintza batzuk antolatuko ditu

**Lasarte-Orian dantzak bere lekua hartu du pixkanaka. Horregatik, Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideek Dantzaren Nazioarteko eguna ospatuko dute apirilaren 29an lehenengo. Horretarako, apirilaren 27an dantza topaketa batzuk eta egunean bertan, ekitaldi xume bat antolatuko dute. Maidor Oartzabal dantzari, koreografoa eta eskolako irakaslearekin bildu gara eta egun honi buruz, euskal dantzaren etorkizunari eta kulturari buruz mintzatuko.**

Nerea EIZAGIRRE

Maidor Oartzabalek azaldu digunez, Dantzaren Nazioarteko eguna 1982an hasi zen ospatzen. “Irakasle errusiar batek, Piepor Gusevek sustatu zuen. Honek Jean Georges Noverre, dantza neoklasikoaren edo modernoaren sortzailea zena oroitu nahi izan zuen bere urteurren egunean, apirilaren 29an. Geroztik mundu osoan zehar ospatzen den eguna da. Urtero koreografo ezagun bati eskatzen zaio manifestu edo mezu bat idazteko. Aurtun Lin Hwaimin taiwandarrak egin behar du manifestua eta egun horretan irakurriko da”.

## Zein da dantzaren nazioarteko egunaren helburua?

Ospakizunaren helburua dantza ezagutzera eman eta kaleara ateratzea, gehien bat, dantza ezagutzen ez duten horien gaitasuna iristeko.

Horrelako egunetan klase irekiak egiten dira, konpainiak kalera ateratzen dira edo dantza emanaldiak egiten dira kalean. Ekintza egiten dira bertan kalean.

Beste egun batzuk dauden bezala, musikoei Santa Zezilia dute, ... ba dantzak ere badu bere eguna eta garrantzitsua da niretzat Lasarte-Orian ere ezagutaraztea.

Horregatik Kukukak aurtun ekintzatxo bat egin nahi du kalean.

## Zer modutako ekintza izango da?

Manifestoa irakurriko genuke eta gero zertxobait egingo litzateke. Oraindik ez dakigu zer egingo dugun zuzur. Baina ekintza simplea, xumea eta polita izatea nahi dugu, ahalik eta jende gehien parte har dezan, adin guztietako herritarrek.

Eta dantza topaketa antolatu dugu apirilaren 27an Manuel Lekuona kultur-etxean. Baina ezin dut gehiago aurreratu.

## Hain zaila al da jendea antzokiara hurbiltzea?

Gaur egun dauden murrizketak guztiekien eta BEZa %21 igo denez, ba gero eta okerrago dugu eta gero eta zailagoa jendea antzerki edo aretoetara joan dadin.

Baina heziketa maila garrantzitsua da gizarte mailan. Badaude zenbait herrialdeetan ohitura asko dagoena eta nik uste dut ohitura horretan gobernuak zer ikusi handia dutela.

Kulturaren inbertitzen bada, jendeak kultura kontsumituko du. Baina adibidez futbolearen inbertitzen bada... Ez zaie hainbesteko aukera ematen beste gauza batzuei. Niri iruditzen zait guztiak izan behar-lukeela aukera berdina.

## Kultura eta dantza garrantzitsuak dira beraz hezkuntzan...

Kulturak beti egiten gaitu pertsona hobek eta zabalagoak beste era batetara. Beste gauza batzuk ikusten ditugulako eta hezten zarelako. Ez zaude itxita zure munduan, baizik eta beste mundu batzuk ere ikus ditzakezu.

Nik uste dut kulturak edo arteak baduela horrelako puntu bat. Aisialdia izateaz gain, askotan arteak badu puntu bat pentsatzera bultzatzen zaituena. Edo pentsa arazten digu edo sentiarazten dizu eta horrekin gero hausnarketara bideratzen zaitu.

## Dantza eta sentimendu horiek adierazten ditu, beraz...

Ez nuke sentimenduak esango baina adierazteko erabiltzen da. Mugimenduak beti adierazten du. Garaian garaikoak.

Euskal dantzak kontestu historiko batean daude. Eta horietan ere adierazten zen. Plazara atera eta ea zeinek zuen gaitasun handiena. Hor bazegoen zerbait adierazteko nahi bat.

**Euskal dantzaz ari zarela, egun sorkuntzarako joera dago eta euskal dantza tradi-**

**zionala galtzearen beldur dira asko...**

Iruditzen zait tradizionalistak existitu behar direla eta esker bai musikan, bai dantzan bai antzerkian... arte klasikoak dira eta hor ditugure oinarriak.

Baina, iruditzen zait purista asko berritzearen kontra daudela beldurragatik. Beraiek maite duten hori desagertuko dela uste dutela iruditzen zait baina kontrakoa dela esango nuke.

Euskal dantza sorkuntza existitzea niretzat oso garrantzitsua da, baldin eta benetako euskal dantza bermatu nahi badugu.

Sortzaileen lana derrigorrez tradizioari begiratu behar diola uste dut, zerbait berria sortzeko, bai musikan, baita dantzan ere. Gero eta sortzailegoa izan, gero eta gehiago begiratu edo behar duzula diot eta gero eta gehiago maitatu edo errespetatzen duzu horrela tradizioa. Eta hori uste dut oso garrantzitsua dela.

## Beraz, tradizionala garaiki-dearekin uztartu daiteke...

Eredu asko ditugu Euskal Herrian bertan, bertsolaritzarekin edo euskararekin, hizkuntza berarekin.

Lehenengo egunean hizkuntzalaritzan aditua dudan lagun bati “Mihiluze” eta horrelako programak hizkuntzarentzako onuragarriak al ziren edo ez galdetu nion. Eta hark esan zidan “bai, ze behin euskara ongi jakinda gero horrekin jolastu egin behar da eta puskatu behar da”.

Eta hori da euskal dantzarekin egiten duguna. Oinarria jakinda, dantza hori historikoki zer den, non kokatzen dugun, zer kontaktzen zuen jakinda... hortik abiatuta, goazen orain dantza horrekin jolastera eta gaurkotzera.

Hala ere, nik uste dut horrela ere bermatzen dela euskal kulturaren zati bat.

## Lehen aipatu duzu, euskal dantzak garaian garaikoak zirela...

Bai, egun ulertzen ez den gauzetako bat da.

Euskal dantzak gaur egun kontestu historiko batean ikusten ditugu, baina garaikoak ziren eta garaian egiten zirenak.



Eta beste gauza bat gehienek ez dakitena da, bat-batekotasuna asko lantzen zutela. Orduan pertsona batzuek pausu hau horrela da esaten dutenean... Benetan ez dakigu nola zen, guri horrela iritsi zaigu, baina nor egon zen bertan hori horrela zela jakiteko.

Horregatik nik uste dut malguagoak izan behar dugula. Beti ere errespetatuz.

## Lasarte-Orian euskal dantza ezaguna izan da, baina ez horren beste dantza garaiki-dea...

Kultur etxean eskaintzen zen dantza garaikidea.

Nolabait dantza garaikidea oso gauza elitista dela dirudi, pertsona batzuentzako bakarrik dena, akademiaren jantzen dena edo oso gauza teknikoa.

Baina Kukukak herriari eskaintzen dio. Eta hemen maila gehiago edo gutxiago daukanak garaikidea egiteko

aukera du eta eskubidea ere bai.

Ez da gauza itxi bat, akademia moduan, baizik eta herri mailan zabaldu da. Eta niretzako oso polita izan da jendeak ezagutzera.

## Gauzak honela, jendea gonbidatzen duzu apirilaren 29ko ekintzan parte hartzera?

Ez hori bakarrik, jende guztia mugitzera eta adieraztera eta bere gorputzarekin lasai disfrutatzen gonbidatzen dut. Benetako behar hori sentitzen baldin badute egin dezatela.

Nik askotan entzun dut “ez dakit dantzatzen”. Nik esaten dut hori ez da egia, “zuk badakizu dantzatzen” denok bezala.

Baina beste gauza bat da bakoitzak bere mugak izatea, kulturalak edo mentalak... Txikitun guztiok egin dugu dantza eta ez genuen inolako eragozpenik hau egiteko, lasai mugitzeko.

## LABURRAK.-

## Areto-futboleko final laurden irekiak

Lehenengo asteburuan, Ostadar SKT-k antolatzen duen areto-futboleko bigarren faseko lehen partidak jokatu ziren. Fase honetan bi txapelketa desberdin daude, fase finala edo play-off-a eta kontsolazio fasea.

Play-off-etan Indaux-Txidoki, Buenetxea-Urdaneta, Izarra-El Punto eta Izkiña-ISU leihok final laurdenetako joaneko partidak jokatu ziren.

Buenetxea eta Urdanetaren arteko norgehiagokan Buenetxea izan zen nagusi, bigarren zatian batez ere eta 7 eta 2koarekin kanporaketa erabakita utzi zuen.

Baina beste hiru partidatan aste honetako etorriko partida izango da erabakiorra. Izan ere, Indaux eta Txidokiren arteko partidatan 0 eta 1 irabazi zuen iazko txapeldu ordeak.

Eta Izarra-El Punto eta Izkiña ISU Leihok partidak berdinak diren artean amaitu ziren, 2-2 eta 3-3.

Era berean, kontsolazioko Balerdi Harategia-Oria kristaldegia; Trumoi-Ilargi eta Albañileria Vertical-Ana eta Soi ileapaindegia partidak jokatu ziren.

## Biyak Bat elkarteko lagunak ederki

Biyak Bat elkarteko kideak jubilatuta elkartean arteko Gipuzkoako mahai joko eta mugimendu jokoen txapelketan ari dira lehiatzen.

Martxoaren 21ean hasi zen lehen fasea Alzako Nao-etxe elkartean eta Donostialdea eremuko sailkapenen saioan Briskan Josefa Arrate eta Concepción Prieto; dominoan Manuel Tirador eta Feliciano Gonzalez; escoban Jose Blanco eta M<sup>o</sup> Paz Mendez-ek; musean 4 erregeetara Manuel Belartietia eta Pedro Martinez bikotea; tutean Jacinto Acosta eta Julio Sanz eta txintoneta Felipe Gutierrezek lortu zuten bigarren faserako txartela.

Honela, bigarren fasea, lehenengo astean apirilaren 4ean, Bidasoa eremuko ordezkariaren aurka jokatu zuen Biyak Batek. Honetan Biyak Bateko briska, eskoba eta musa lau erregeetara jokoetako bikoteak eta Felipe Gutierrez-ek lortu zuten sailkapena. Biyak Bateko arduradunek jakin arazi digutenez, oraindik ez dago zehaztua noiz jokatu den hurrengo fasea.

## SASKIBALOA.-

## Neskak fase finalen bila

Ostadar SKT eta Landaberriko taldeak ederki ari dira lanean

**Lasarte-Oriako saskibaloia harrobia dagoela ederki erakusten ari dira Ostadar SKT eta Landaberri ikastolako neskek. Asteburu honetan, Ostadarreko kadete eta Landaberriko eskolarteko mini mailako taldeek hurrengo fasean sailkatzeko lehiatu behar dira. Landaberriko infantil-txiki taldea dagoeneko sailkatuta dago.**

## Nerea EIZAGIRRE

Alebin mailatik kadete mailarako saskibaloia taldeak daude martxan gure herrian. Maila federatua, zein eskolarteko mailan daude lehiatzen eta Gipuzkoako txapelketako finaletan egoteko aukera dituzte hirurek.

Maila federatua, Ostadar SKTko kadeteak eta Landabe-



Ostadar taldeko neskek partida irabazi behar dute finalerako txartela lortzeko.

ri ikastolako infantil-txiki taldeak partehartze mailan daude bi talde hauek faseko azken jardunaldia jokatu dute aste honetan.

Landaberriko infantil-txiki taldea sailkapeneko lehenengo postuan dago eta dagoeneko sailkatuta dago apirilaren 28an jokatu den finalerako.

Ostadar SKT-ko taldea bigarren dago sailkapenean lehen sailkatuarekin puntuetan berdindua. Baina partida ira-

bazi behar du sailkapena lortzeko, izan ere, hirugarren sailkatua puntu batera baitago.

## Sailkapen fasea

Eskolarteko mailan berriz, Mini mailako gazteak Gipuzkoako txapelketarako sailkapen fasean daude.

Berejoren neskek Tolosa-ko Laskorain taldearen aurka joan-etorriko partidak jokatu dituzte. Irabazleak Gipuzkoako txapelketan parte hartuko du.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 13

Berio, Donostia, 09:00etan

Santo Tomas Lizoea-Ostadar

Infantil Txiki, kopa

Michelin, 11:35ean

Ostadar-Touring

Infantilen Ohorezko maila, kopa

Michelin, 13:05ean

Texas Lasarteerra-Ostadar

I. Kadetea, kopa

Puio, Donostia, 15:00etan

Vasconia-Ostadar

I. Erregionala, igogera

Michelin, 15:30ean

Ostadar-Santutxu

Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko Maila

Zaldupe, Ondarroa, 16:30ean

Aurrera-Ostadar

Erregional Ohorezko maila

Michelin, 17:15ean

Ostadar-Allerru Emakumezkoen Liga

Alustiza Segura, 17:45ean

Segura-Texas Lasarteerra

I. Erregionala, kopa

Igandea 14

Berio, Donostia, 09:00etan

Antigua Luberrri-Ostadar

I. Infantil, kopa

Urnieta, 09:30ean

Ostadar-Billabona Alebina, kopa

Zarkumendegi, Astigarraga, 09:30ean

Astigarraga Mundarro-Billabona

2. urteko alebinak, Futbol Eskolak

Zaldupe, Ondarroa, 16:30ean

Aurrera-Ostadar

Jubenilen Ohorezko maila

## ARETO-FUTBOLA

Larunbata 13

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantxa

11:30ean, Balerdi-Ana eta Soi ileapaindegia

12:30ean, Trumoi-Oria kristaldegia

13:30ean, Albañileria Vertical-Ilargi

Kiroldegia

17:30ean, ISU Leihok- Izkiña taberna

Elorsoro kiroldegia, Oiartzun, 17:30ean

Oiartzun-ISU Leihok

Gipuzkoako Liga

Belabieta kiroldegia, Ibarra, 18:00etan

Ibarra-Aldaz H.K.

Nazional B maila

Igandea 14

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantxa

09:15ean, Buenetxea taberna-Urdaneta H.K.

10:15ean, El Punto-Izarra

11:15ean, Txidoki-Indaux

## SASKIBALOA

Larunbata 16

San Patricio ikastetxea, Donostia,

09:30ean

Easo 00 San Patricio Txiki-Landaberri

Infantil txiki neskek, partehartzea

Kiroldegia, 10:30ean

Landaberri 06-Laskorain

Mini neskek, Gipuzkoako txapelketarako

sailkapena

Kiroldegia, 16:00etan

Ostadar SKT- Bera Bera Balda

Kadete neskek, partehartzea

## SQUASHA

Ostirala 12

HERRIKO TXAPELKETA

Kiroldegia, 18:30etatik aurrera

Oswal Cañedo-Roger Hidalgo

Joakin Peña-Oscar Lopez

Astelehena 15

HERRIKO TXAPELKETA

Kiroldegia, 18:30etatik aurrera

Kinin Calvo-Aitor Tejero

Iker Cañedo-Xabier Amiano

Asteartea 16

HERRIKO TXAPELKETA

Kiroldegia, 18:30etatik aurrera

Imanol Olaizola-Juanjo Martin

Asteazkena 17

HERRIKO TXAPELKETA

Kiroldegia, 18:30etatik aurrera

Iñaki Garcia-Fernando Montero

Joseba Lorente- Dani Davila

Osteguna 18

HERRIKO TXAPELKETA

Kiroldegia, 18:30etatik aurrera

Aitor Tejero- Oswal Cañedo

Xabier Amiano-Joakin Peña



## JUDO

Larunbata 13

Arriaga kiroldegia, Gasteiz, 16:00etan

LOKEko kadete mailako Fermin

Balda, Haritz Urdangarin eta Asier

Zubizarreta eta Jorge Revuelta,

Mikel Lasa eta Talib Vergara

infantilek San Viator nazioarteko

txapelketan parte hartuko dute.

## ATLETISMOA

Larunbata 13

Egia, Donostia, 17:00etan

Herriko hainbat atletek Egia auzoko

Sudur-Krosa proban parte hartuko

dute.

Igandea 14

Bera, 09:30ean

Herriko hainbat atleta IX. Berako

Mendi maratoi erdian izango dira

lehiatzen.

Mendaro, 10:00etan

Herriko hainbat atletek Mendaroko

III. Mendi lasterketan parte hartuko

dute.

## ERRUGBIA

Larunbata 13

Michelin, 10:00etan

Beltzak Ostadar Gure Etxea-Zaiza

Irun Euskal Liga, Kadete maila

Asti, Zarautz, 10:30ean

Beltzak Ostadar Zarautz-Ordizi

Infantil federatua

Igandea 14

Michelin, 10:30ean

Beltzak Ostadar Jalai errugbi

eskolako alebin eta benjamin

mailetako gaztetxoek Eskolarteko

III. Topaketa izango dute.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 13

Otxandio, 16:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako

I. urteko kadeteek Gaztetxoak

torneo lasterketan parte hartuko

dute.

Aizarnazabal, 16:30etan

Bazpi Txirrindularitza eskolako

infantilak Aizarnazabalgo Saria

proban izango dira.

Igandea 14

Biyak Bat elkarte, 08:30ean

Ostadar SKT-ko zikloturistek

Guadalupe eta Jaizkibel aldera

egin dute irteera.

Zarautz, 10:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko 2. urteko kadeteek

Zarautz sarian parte hartuko

dute.

## BOLA-JOKOA

Igandea 14

Olaberria, 10:00etan eta 16:30ean

Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak

Gipuzkoako kopako lehen saioa

jokatu dute.

## Agenda

Larunbata 13, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



### Dantza garaikidea taula gainean

Lasarte-Oria dantzan 2013ko lehen ikuskizuna eskainiko du Dantzaz konpainiak, "Ar-tean". Hiru koreografia, "A Place Between", "Earth Apples" eta "Flash deluxe" eskainiko ditu Donostia-ko konpainiak. Azken honetan, perkusio eta txalaparta nahasten dituen sormen handiko melodia izango da entzungai. Sarrera, leihatilan, 6,50 euro; internet bidez, 5,40 euro. Eusko Jaurilaritzak sustatzen duen "Dantzabultzatuz" zirkuituko saioa da.

**Ostirala 19, 20:30ean**

Ruper Ordorika abeslariaren kontzertua izango da. Sarrera, leihatilan 3,50 euro; internet bidez, 3,25 euro.

**Larunbata 20, 19:30ean**

Pasaia Musikaleko Octopus eta White Storm konboen kontzertua entzuteko aukera izango da. Haien errepertorioak estilo bariatate handia dauka. Doan.

### Erakusketa

**JALGI KAFE ANTZOKIAN**

**Apirilaren zehar**

Mundu bat GKE-k antolatuta, "Emakume nekazariak" argazki erakusketa ikusgai izango da.



### Lasarte-Oria

#### Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Igandea 14, 17:00etan**

Haurren zinea atalean, "Tom Sawyer" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro.



#### Musika

**JALGI KAFE ANTZOKIAN**

**Ostirala 12, 23:00etan**

Lasarte-Oriako Despericio taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

#### Musika astea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Asteazkena 17, 19:30ean**

Musikene, Euskal Herriko Goi-mailako musika ikastegiko, Saxofoi ensemblea entzuteko aukera. Doan.

**Osteguna 18, 19:30ean**

Ainhoa Merzero sopranoaren ahotsaz

gozatu ahal da. Euskal doinuak, zein egile handienak eskainiko ditu. Doan.

**Osteguna 18, 21:30ean**

Ostegun zinea atalean, "Let's get lost" filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Chet Baker jazz tronpetistaren bizitzari buruzko dokumentala. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.



### Andoain

#### Antzerkia

**BASTERO KULTURGUNEA**

**Ostirala 12, 21:30ean**

Ttanttaka antzerki taldeak "Gauerdian" antzerkia eskainiko du. Sarrera, 10 euro. Euskaraz.

#### Dantza

**BASTERO KULTURGUNEA**

**Ostirala 19, 20:00etan**

Andoain dantzan ekimenaren barruan, Urki dantza taldearen lana ikusgai. Sarrera doan.

## Herritarren txokoa

#### Alboka Abesbatzaren Batzar Orokorra

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, apirilaren 22an astelehena, urteroko batzar orokorra egingo duela Arantzazuko Amabirjinaren eliza azpiko lokalean.

Lehenengo deialdia 19:30etan izango da eta bigarrena 20:00etan. Bazkide eta abeslarietarako erregutuzen zaie puntual iristea.

#### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru ordulari, sei betaurreko graduatu, patinete bat, euritako anorak bat, hiru mugikor, haur baten berokia eta motxila bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, goizez 09:00etatik 13:00etara.

#### Uztaro kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba

Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaien garaioak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidetan.

#### Margo eta marrazki klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxe 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

## Jarraitu txintxarri sarean!!



Paperean irakurri ditzakezun albisteak eta gehiago, txintxarri.info web orrialdean aurkituko dituzu.

Ekitaldi desberdinetako argazki galeriak, zein bideoak ere aurkituko dituzu bertan.

Jarrai gaitzazu ere Txintxarri aldizkaria facebook orrialdean eta @txintxarri twitter kontuan.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

# Michelin II bertan behera

■ Michelin Fundazioak martxoan aldaketak egin zituen proiektuan ■ Udalak aldaketa hauen aurrean jarritako baldintzak ez ditu onartu nahi izan Fundazioak hasiera batean

*Martxoaren hasieran Michelin fundazioak hasierako proiektua aldatu zuela jakitera eman du Udalak. Proiektu berrian gune komertzialari tamaina handiagoa ematen zitzaion eta eremuaren aprobetxamendua zela eta Udalari ordainduko liokeenaren inguruko informazioa jakinarazi zuen. Honen aurrean udalak baldintza batzuk jarri zituen mahai gainean eta martxoaren 22an udal ordezkariak esan bezala, "ohar labur batean" proiektua bertan behera uztea erabaki zuen Michelin Fundazioak.*

**Maidier AZURMENDI**

A tzo Manuel Lekuona-kultur-etxean Michelin II proiektuaren azken berriak plazaratu zituen alkateak. Bertan bildutako herritarrei, proiektua Michelin Fundazioak bertan behera utzi duela azaldu zien.

Bileran esandakoaren arabera, Fundazioak martxoaren hasieran udalari proiektuan aldaketak aurkeztu zizkion erabilpen komertzialerako bideratzen zen eremua bikoiztu.

Honekin batera "proposamena gauzatu ahal izateko, Michelin garapen fundazioak Lasarte-Oriako Udalari 100.000 euro ordainduko lizkioke, honek ondoren, Capital Nortek salduko lizkiokeen bulego batzuk erosi eta bertan enpresa-mintegi bat sortzeko".

Proposamen berriaren aurrean, "negoiazioetan sartu aurretik Udalak bete beharreko marra gorriak ezarri zituen". Izan ere alkateak esan moduan "udal korporazio honentzat, Michelin fundazioak, Capital Norte S.L-ren adostasunarekin, eginiko pro-

posamena eskasa eta onartezina zen".

Udalak bere baldintzak arrazoitzeko, "hasieran, proiektu honen arrazoi nagusia erabilpen industrialaren eta planteamendu berriarekin hau indargabetzen zela ulertu genuen". Gainera "udalari orubearen aprobetxamendua dela eta jasotzea zegokion kontra-partida ez zen legez zegokion kopurura iristen. Beraz, Udalak ezin zuen salbuespenik egin eta aurrekariarik sortu".

## Erabilpen industrial eskasa

Udal korporazioa, hala ere, birplanteamendu bat egiteko prest zegoen "beti ere, izaera



Proiektuaren egoeraren berri eman zuten udal ordezkariak bilera irekian.

industrialaren eta legearen betebeharraren baldintza minimoak betetz gero".

Guztia kontutan izanda, Udalak hiru baldintza proposatu zituen "interes orokorrean oinarrituta". Horrela aprobetxamenduaren balorazioari dagokionez legez jaso beharrekoak mantendu behar zirela, 700.000 euro.

Udalak ez zuen kopurua dirutan jasotzeko asmorik, azalera eraikin baizik "eta kontutan hartuta eraikuntzako kostua merkatukoaren azpitik

dagoela". Urbanizatze lanak direla eta, kontutan hartu beharra zegoen Udalak Bidegorria daukala eginda, 280.000 eurotako inbertsioa galduz. Beraien 250m<sup>2</sup>-ko azalera eraikiko kontra-partida "guztiz onartezina eta oso murrizta iruditzen zitzaigun".

Horrekin batera "eremu industrial eta komertzialen banaketak jatorriko puntura bueltatu beharko lukeela uste genuen, lehenengo fase batean erabilera industrialari zegokion zatiak ere burutu

beharko zitezkeela iritzita. Beharrezkotzat jotzen genuen eremu honetan ezarriko ziren enpresak zein ziren jakitea ere herritarrei ezagutzera eman ahal izateko".

## Udalaren esku

Lasarte-Oriako Udalaren esku dago gune komertzialaren eraikuntzari baimena ematea edo ez. Izan ere, eraikuntza berriak erabilera komertzialera zuzentzea, lurren kalifikazioa aldatzea eskatzen du.

Erabakia hartu baino lehen Udalak proiektua publiko egitea erabaki zuen otsailean, eta lehenengo bilera bat egin zuen herritarrei ahalik eta informazio gehien emateko. Eskuorria banatu zen etxeetan proiektuaren azalpenekin eta *Merkatal-industriagunea Lasarte-Orientzat?* galdeketa proposatu zuen.

Atzo azaldu moduan, 202 herritarrek erantzun zioten galderari eta hauen %47,22 proiektu honi baimena eman behar zaiola uste du, %46,29 ez dela defendatu behar eta %6,48 ez du erantzunik eman.



Lehenengo planoan otsailean herritarrei aurkeztutako proiektua, bigarrean Michelin Fundazioak martxoan udalari egindako proposamena.

Dastatu zure etekin bikoitza!  
Euskaraz errentagarriagoa!

Autolikidazio proposamena jaso baduzu  
orain da garaia, euskara aukeratu!

902 100 040 telefonoan edo [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) webgunean

Buruntzaldea Lasarte-Oriako Udala